# ttipi-ttapa

**223.** zenbakia • 1998ko otsailak 12 • **XVII.** urtea

# '40 ordu'

## Leitzarrak aktore bihurtu dituen filma estrenatu da

*Leitzan duela gutxi arte egiten ziren herri kirol apostuak eta kontrabandoaren pasarteak gogora ekartzen ditu pelikula honek*

Hilbeltzaren 23an estrenatu zen Leitzako Zine Aretoan «40 ordu» pelikula. Ordu terdiko iraupena duen filma hau egiten 50 hamar leitzarrek hartu dute parte eta apostu baten gorabeherak ditu ardatz nagusi bezala. Joxean Perurena 'Vidicom' produktorako arduradunak adierazi digunez, 150.000 pezetako (6.000 libera) aurrekontua izan du filmak, bost egunez grabatu da eta *«uste baino hobekiago moldatu dira aktore guziak»*. Estreinaldi egunean ttiki gelditu zen Leitzako zine aretoa, 400 ikusle sartu eta ehundik gora kanpoan gelditu baitziren ezin sartuz. Hauek maiatzean burutuko den Kultur Astean izanen dute «40 ordu» filma ikusteko bigarren aukera. ☞ 3



Argazkia: GILLENEA

☞ **SENPERE** *Aireko bista*



Studio de la Nivelle

## ttipi-ttapak Senpereko berriak ere bilduko ditu hemendik goiti

Oxtikenekoak elkarteak eskaturik eta haren sustenguari esker, TTIPI-TTAPA Senpereko etxe guzietarat igorria izanen da bi hilabetez bederen senpertar guziek aldizkari hunen berri izateko gisan. Gero, TTIPI-TTAPA hartzen segitu nahi duen senpertarrak aski izanen du aldizkari hunekin batera hartuko duen papera Oxtikenearat turnatzea lehenbailehen. Manera hortan, errepustak bilduz jakinen da xuxen nork nahiko duen irakurri TTIPI-TTAPA. ☞ 4

# ZILO BOLAK EGITEKO PLASTIKOA

® SILOTITE BONTITE

- Belarra ziloratzeko erabiltzen den plastikoetan liderrak
- Koloreak: xuria, marroia, berdea eta beltza. Hiru kapako plastikoa
- 9 urteko esperientzia
- Kalidade eta prezio arteko erlaziorik hoberena

*Plastiko luzagarria belarra bolatan sartzeko*

**Ez zaitzatela zióririk sartu imitazioren batekin**

**Kontutan hartu zenbat belar kilo arriskatzen dituzun**

Zilo bolak noiz egin behar diren, zenbat buelta eman, plastikoa ongi tinkatzeko nola egin, non eta zein posturatan pilatu behar diren bolak, zein zabalerako plastikoa den hoberena (500 mm. edo 750 mm.) eta bertze edozein duda izanez gero, **eskatu informazioa. Denok ikasiko dugu zerbait gehiago!!**








**Eskariak berehala atenditzen ditugu**
**Galdetu prezioak konpromisorik gabe**

## AROZ - BERRI, S.A.
NEKAZAL TRESNERIA

N-121-B errepidea, 54. km.a • ✆ **581021-580258** • Faxa 452103 • 31730 **IRURITA**

# Nobedade Espainian






**Auto baten itxura eta osagarriak**
(kalefakzioa, irrati-kasseta...)
**Moto baten kondizioetan**

**Auto karnetarik gabe**
(Mobilettaren permisoarekin)
14 urtetik gorakoentzat eta adineko jendeak erabiltzeko moduan

**Bi lagunendako lekua**
**Diesela, bi zilindroduna**
**Martxarik gabe, automatikoa** (Antzinera-Gibelera)

INFORMAZIOA ETA SALMENTA

## Juan LARREGI «BITXO» Tailerrean
Santiago, 10 • ✆ 580898 • ELIZONDO

DATUAK..........

❖ *Inoiz ez bezalako jendetza elkartu zen Leitzako zinean "40 ordu" luzemetraiaren estreinaldia zela eta.*

❖ *Herri kirol eta apostu giroko pelikula hau iazko abenduan filmatu zuten Leitza eta Goizuetako inguruetan.*

❖ *Bertan parte hartu duten gidoigile, kamara, produktore nahiz aktore guziak herrikoak izanik, ulertzekoa da sortu duen ikusmina.*

❖ *Telebistan botatzea ez dute pentsatu ere egin, baina Doneztebe, Goizueta eta Lekunberriko zineetan ikusgai izanen da laister.*

TESTUA:
**ASIER GOGORZA**
ARGAZKIA:
**JOSEBA AZPIROZ**

☞ **Joxean PERURENA** *"40 ordu" filmeko aktore eta produktore*

# "Guk uste baino askoz hobekiago moldatu dira aktore guziak"

**IÑAKI PERURENA, PATXI ASTIBIA ETA HERRIKO JENDE ADINTUAREN LEKUKOTASUNAK ERABILI DITUZUE GIDOIA OSATZEKO, BAINA ZEIN DA PELIKULAREN ARGUMENTUA?**

Pelikula melodrama bat da, orain dela 50 bat urteko giroan kokatua. Benito protagonistak apostua egiten du fernandeztar dirudunekin: 75 kiloko harria bizkarrean hartuta Leitzako mugak egin behar ditu 40 ordutan. Benitok baserria jokatzen du, eta fernandeztarrek berriz, mila duro.

Apostuaren inguruan sortzen ziren komentario eta eztabaidak ageri dira filmean, eta baita herri kirolari buruzko garai bateko kontzeptzioak; haragi asko jan, urik ez edan batere…


Unai Zabaleta, Mikel Elosegi eta Joxean Perurena, estudioan.

**150.000 PTAKO AURREKONTUA ZENUTEN. NOLA EGITEN DA FILMAKETA BAT HORREN DIRU GUTTIREKIN?**

Grabaketa Leitzan egin zen gehienbat, Alde Zaharrean, etxe zahar batzuetan, herriko mendietan eta baita Goizuetan ere. Osotara 5 egunetan grabatu genuen iazko abenduan. Aktore guziak amateurrak ziren, bainan guk uste baino askoz hobekiago moldatu ziren. Filmean parte hartu duten jubilatuek orain dela aspaldi antzerki bat egin zuten eta ikusi genuen balio zutela. Dena den, pelikula grabatzerakoan gure gorabeherak izan ditugu, goizeko 8etan hasi eta oso berandu bukatzen genuelako. Ez da deus berexirik gertatu, baina gogorra izan da.

**IHAUTERIETAN HORRELAKO ARRAKASTA IZAN ONDOREN, NOIZKO HURRENGO EMANALDIA?**

Maiatza aldera egiten den Aste Kulturalaren barnean botako dugu berriz. Egia esan pentsatzen genuen zinea beteko zela, herriko aktoreak izanik-eta, bainan horrenbeste… 400 pertsona sartzen dira salan, eta 100tik gora gelditu ziren kanpoan.

Guk ikusten dugu kanporako ere balio duela pelikulak, beti ere Leitza bezalako herri bat bada, hori bai. Doneztebe, Lekunberri eta Goizuetan dagoeneko eskaini digute pelikula botatzeko aukera.

**VIDICOM PRODUKTORAK ZENBAIT LABURMETRAI EKOIZTUAK ZITUEN LEHENDIK ERE.**

Bai. Orain arte egin ditugun laburmetraietatik "Nik izan nahi dut" monarkiari buruzko parodia eta "Ametsaren bideak" pelikula guztiz surrealista (irakaskuntzari buruzko filosofi lan arraro bat) aipatuko nituzke.

Vidicom produktoraren proiektua ez zen bete eta gaur egun Karrape Irrati-Telebistan ari gara burubelarri lanean.

*"Apostuaren inguruan sortzen ziren komentario eta eztabaidak ageri dira filmean, eta baita herri kirolari buruzko garai bateko kontzeptzioak."*



# ttipi-ttapak Senpereko berriak ere bilduko ditu

**Senperek 5 auzo historiko ditu: Amotze, Plaza, Ibarrun, Helbarrun, Olha eta Hergarai. Berrikiago auzo gehiago ere antolatu dira: Aintzira, Urguri...**


TESTUA: ***JOXEMANUEL IRIGOIEN***

ARGAZKIAK: ***STUDIO DE LA NIVELLE***


**LAPURDI**

SENPERE



- **Azalera**: 6.300 Ha.
- **Muga herriak**: Ahetze, Ainhoa, Arbona, Arrangoitze, Azkaine, Baztan, Donibane Lohizune, Urdazubi, Uztaritze, Sara eta Zuraide.
- **Populazioa**:
  1982: **3.056**
  1997: **3.877**
- **Lana**: (1991ko datuak)
  1.366 biztanle lanean
  126 lanik gabe
  **Laborantzan**: 132
  **Industrian**: 256
  **Zerbitzuetan**: 978
- **Auzapeza**: 1993tik goiti **Pierre Hirigoien**
- **Bestak**: Herrikoak **Jondoni Petri**kari, ekaineko azken astean. Ibarrunen San Migelak. Amotzen Sta. Madalena.
- **Elkarteak**: Orotara 51
- **Lantegiak**: **Delphia** kozmetika, **Orma** arrain kongelazioa, **Les pécheurs basques** arrain kontserbak, **Duperou** iturgintza, **Bascomat** etxegintza, eta bertze 4.

***Senpereko Oxtikenekoak elkarteak eskaturik eta haren sustenguari esker, TTIPI-TTAPA Senpereko etxe guzietarat igorria izanen da bi hilabetez bederen senpertar guziek aldizkari hunen berri izateko gisan. Gero, TTIPI-TTAPA hartzen segitu nahi duen senpertarrak aski izanen du aldizkari hunekin batera hartuko duen papera Oxtikenearat turnatzea lehenbailehen. Manera hortan, errepustak bilduz jakinen da xuxen nork nahiko duen irakurri TTIPI-TTAPA.***

Tokian tokiko berriak bildu, eta galdegiten duten herritar guzieri urririk banatzea da TTIPI-TTAPAren xedea. Orain arte Nafarroako iparraldean eta Lapurdiko Saran banatzen bada ere, otsailetik goiti Senperen ere zabalduko da.
Horrela, bada, Oxtikenekoak elkartea elkarlanean hasi da TTIPI-TTAPA aldizkariarekin, Senpereko berriak bilduz eta publizidadea bilatuz han eta hemen. *«Guhaurrek euskarazko aldizkaria sortzeko asmoa ginuen baina ez ginuen ahal haundirik gure asmoa gauzatzeko»* diote Joana Mendiburu eta Franck Dolosor, elkarteko ordezkariek. Horren karietarat, TTIPI-TTAPA Senpererat zabaltzeko idea izan zuten, *«Senpertar ainitzek harremanak dituztelakotz Nafarroako auzo herriekin, eta franko Baztan edo Bortzirietan sortuak direlakoz»*.

### Senpereko 1.700 etxetarat

Hastapenean, hilabetean behin bakarrik eskainiko da eta denetara 1.700 aldizkari zabalduko dira urririk bi alditan, oraingo honetan eta bertze batean. (Denetara 8.300 argitaratuko dira).
*«Ondotik, nahi duten guziek eskatu beharko dute eta TTIPI-TTAPA urririk emanen zaiote»*. Izan ere, Senpereko berriak biltzeko orrialde bat atxikiko da aldiro eta *«epe laburrean gure asmoa izanen da hamabortzekaria banatzea Urdazuri ibarreko bertze herrietarat»* gaineratu dute Oxtikeneako ordezkariek. ■

# *Senpere ez da Herri Urrats bakarrik!!*



eren pilotak betidanik leku haundia izan du. Ar-
an iazko finalean ateria da: pilotaria Oçafrain da
ijea Paxkal Arotzarena.



goi bat etxalde ditezke Senperen. Argazkian La-
loko familia Senpereko primetan.



eta Senpereko kantariak Pierre Camino zuzen-
rekin. Herrian kantari famatuak ere badire: Brave
essonart.



iak mundu bat mugitzen du, haurtxoetarik hasi
dinetakoetan segituz.

1984az geroztik, ikastolen aldeko Herri Urrats bestak Euskal Herriko mutur guzietarat zabaldu du Senpere izena. Milaka eta milaka lagun ibiliak dira aintziraren bazterretan. Hala ere, Senpere ez da aintzira bakarrik.

## Historia

Lehenengo herrigunea Ibarrunen zegoen eta 1233ko agirietan azaltzen da lehendabiziko aldiz aipatua Senpere. Gaztelua ere bazen bertan, 1249-rako aipatua idatziz. Gazteluaz eta bertako biztanleez gain (Sault, Amezketa, Beaumont, Chicon, Caupenne D'Amou), oinetxe eta jauntxo-familia ainitzeko herria izan da Senpere. Senpereko jaunak Lapurdiko aginte kargua izan zuen Louis XIV.aren erregetza arte.

Iraultza Frantsesaren garaian, Senpere izan zen, apaiz eta herritar, gehienak iraultzaren aldeko hautua egin zuen euskal herri bakanetako bat. "Beaugard" izena ezarri zioten iraultzaileek orduan eta kantonamenduko hiriburua izan zen.

## Ekonomia eta populazioa

Larogoi bat etxalde izanen dira Senperen. Ardiak, laborantza eta oihanak diru iturri inportantak dire senpertarrentzat. Senpereko Oihanak 800 Ha. ditu.

Industria ere bada. Lizardia Industrialdean (20 Ha.) lantegi andana bada hor kokaturik (Delphia, Orma, Les pécheurs basques, Duperou, Bascomat eta bertze lau lantoki ttikiago). INRA Ikerketa Zentrua ere hortxe dago. Batez ere, arrainen hazkuntzarako alimentazioa eta arrain migratzaileen gan-etorriak aztertzen dituzte (izokinak konparazione). Sara eta Senpere artean antolatu lan eremua oraindik hutsa da (10 Ha).

Azkenik, aintzira inguruan garatu den turismoak hotelak, jatetxeak eta bigarren etxebizitza ainitz sortu ditu. Ondorioz, ekonomiaren hazkuntzak jendea ekarri du Senpererat: 1954an 2.054 biztanle ziren eta egun, 1997an, 3.877 dira.

## 51 elkarte eta 4 ikastetxe

Elkarteen artean SPUC (Pilota, Rugbia, Eskubaloia); Zirikolatz (dantza); Emak Hor, AEK... Ikastola, Eskola Publikoa, Saint Joseph eta Saint Christophe ikastetxeak.



Joana Mendiburu eta Franck Dolosor Oxtikenekoak elkarteko kideak Baionako agerraldian

☞ **OXTIKENEKOAK Elkartea** *Senpereko berriemaileak*

## "Lehen bi hilabeteetan etxe guzietarat igorria izanen da"

***Zertarako sortu zinuten Oxtikenekoak elkartea?***

❒ Hitz gutitan erraiteko, kultura eta euskara bultzatzeko Senperen. Orain arte gauza batzuk egin ditugu; Oxtikenea konpondu, Kultur Hilabetea, Urtats gaueko afaria, San Joan sua, bertso afaria otsailaren 7an... Hala ere, herritar guziak hunkituko dituen zerbait sortzeko beharra sentitu ginuen, zerbait iraunkorra, herri aldizkari bat izaiten ahal den gisako aktibidadea. Aldizkari honen bitartez senpertarren artean euskara indarberritzea nahi ginuke.

***Eta zergatik TTIPI-TTAPA?***

❒ Aldizkari osoa guk bakarrik ateratzea ezinezkoa zaigulakotz, bai diru aldetik eta bai lan aldetik ere. Baginakien TTIPI-TTAPA Saran banatzen dela 1990az geroztik, eta esperientzia hortan oinarritu gara Senperen gauza beretsua egiteko. Bertzalde senpertar aunitzen familia Nafarroako auzo herrietatik etorria da, eta proiektu honek balioko du lotura horiek indartzeko, elgarren berri izaiteko eta proiektu berrietan elgarrekin saiatzeko.

***Nola pentsatua duzue TTIPI-TTAPA ezagutaraztea senpertarreri?***

❒ Aldizkaria urririk banatuko da, hilabetean behin, oraingoz. Lehen bi hilabeteetan etxe guzietarat igorria izanen da, eta gero, etxean eskuratu nahi duenak galdegin beharko du. Hortarakoz, aldizkari hunekin batera igorri den papera bete eta Oxtikenearat turnatu behar da aski fite.

***Eta gerora begira...***

❒ Erran bezala, oraingoz Senperen banatuko da hilabetean behin. Gero ikusi beharko bertze herrietan egiten den gisa berean, bi astetik behin banatzen ahal den. Eta ez hori bakarrik. Ikusi beharko litzateke Urdazuri errekaren bazterretan diren bertze herrietarat ere zabaltzen ahal den. Zergatik ez?

ttipi-ttapa
HAMABOSTEKARIA

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 8.300 ALE

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa
Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa: 63 11 88
Faxa: 63 12 91
**Internet:**
ttp://www.encomix.es/ttipi-ttapa
**e-mail:**
ttipi@encomix.es

**uzendaria:** Joxemanuel Irigoien. **Publizitatea:** Miren Karele Tolosa. **Erredakzioa:** Ai- Arozena, Asier Gogorza, Joxemanuel Irigoien. **Administraoa:** Amaia Goia. **Erredakzio ldea:** Pello Apezetxea, Juais Paul, Kristina Boan, Bittori lletxea. **Berriemaileak:** Joba Azpiroz, Esteban Arozena, ana Mari Saizar, Ainhoa utuberria, Iban Isasi, Txema dabe, Patxi Otxandorena, Jaio- Otxandorena, Alba Fernanz, Pablo Mendiburu, Joseba arabide, Alizia Olaizola, Marri Etxenike, Koro Irazoki, Mi- Gerendiain, Jacqueline, Elibet Iturria, Garbiñe Maiz, Osr Txoperena, Pello Apezetxea, or Arozena, Asier Gogorza.
**laboratzaileak:** EHNE Nafaa, Mikel Bezunartea, Joxe Jar Etxeberria...
**rimategia:** Gertu.
*pi-ttapa*k ez du bere gain harn derrigorrez, aldizkarian adiezitako erranen eta eritzien eranakizunik.
**akunde Laguntzaileak:** Be- Leitza, Goizueta, Areso, Baz-, Urdazubi, Zugarramurdi eta rako udalak, Bortzirietako Eusra Mankomunitatea, Malerreko Zerbitzu Mankomunitatea, garramurdiko Akelarre Elkara...

Aldizkari honek Nafarroako obernuaren laguntza jaso du




GAURKOTASUNEKO GAIA

# Emakume taldeen urteko egitasmoak

## Etxetik atera, lagunekin elkartu eta errutina aldatzea dira helburuak



Blanca BAÑARES
'Ezpelura'. Malerreka

"Ezpelura" Malerrekako emakumeen elkartea 96ko abenduan sortu zen ikastaroekin jarraitu ahal izateko. Lehen *EPA*ren bitartez ematen zizkiguten, bainan ardura hori Kultura Sailetik Emakumearen Institutora eskualdatu zenean kurtsorik gabe gelditu ginen. Orduan zenbait emakume elkartuz Institutuari ikastaroak egiteko eskaria aurkeztu genion eta haiek emandako dirulaguntzarekin bortz kurtso antolatu genituen iaz; mobleen zaharberritzea, jostungintza eta artisautzari buruzko hiru.
Iazko urtean egindako ikastaro eta hitzaldiekin kontent gaude egia erran, eta aurten gehiago eskatzeko asmoa dugu, horretarako epea itxi baino lehenago. Lore-artea, artisautza, jostungintza, mobleen zaharberritzea, argazkigintza, sukaldaritza, etxeko lantxoak, ekologia, autodefentsa eta giza-trebetasunen inguruko ikastaroak egiteko asmoa dugu urte honetan, 60 bat ordukoak banaz bertze.
Nekazal eremuko emakumeari begira antolatu ditugu, lagunekin elkartu, eguneroko errutina aldatu eta etxetik ateratzen laguntzeko.

## Egiten ditugun ekitaldiekin egunerokoari aurre egiteko indarra bildu nahi dugu



Anttoni ETXEBERRIA
'Uxua'. Bera

Urte berriarekin Uxua emakume taldean asmo berri eta zaharrak ditugu. Hiru ataletan banatuko genituzke gure eginkizunak: ikastaroak, emakumearen egunaren inguruko aktibitateak eta gure taldearen dinamika.
Ikastaroei dagokionez, eskulan eta idazketa tailerrekin segitu nahi dugu aurten, eta altzarien konponketa eta sendabelarrei buruzko ikastaroak ere martxan jarri nahi ditugu. Egun hauetan, bestalde, erlajazio ikastaro bat egiten ari gara eskualdeko osasun zentroak antolatuta.
Emakumearen asteari buruz, seguraski ohiko afaria eta eskulanen erakusketa antolatuko dugu, eta horretaz gain, emakumeentzat egindako antzerki lan bat ekarri nahi dugu.
Eta azkenik, guretzat garrantzitsuena dena, talde-dinamika, urte guzian zehar lantzen duguna, solasaldiak, gai desberdinen inguruko iritziak...
Aipatutako guziarekin egunerokoari aurre egiteko indarra bildu nahi dugu, disfrutatu eta bizitzan deskantsurik gabe egin behar dena, pertsona bezala garatu, arazoak gainditu, hori ahal den girorik lasaienean, alaienean.

## Aurten Emakumearen Institutuaz paso egitea pentsatu dugu



Inma ZESTAU
'Ttanttoka'. Leitza

Aurten hirugarren urtea beteko du Ttanttokak etanahiko motel baldin bada ere, hasieratik planteatzen genituen helburuetara hurbiltzen ari garela uste dut.
Ekintza puntualetara dozena bat lagun biltzen gara aldez aurrez abixatuta, eta motore lanak egiten dituen batzordean, berriz, hiru lagun ari gara lanean
Lehen urteetan formazio mailako hitzaldi eta ikastaroak izandu ziren, baina aurtengoan pausu berri bat eman nahi genuen, ia herri mailan errekonozimendua lortzen dugun. Hortaz, partizipazio zabaleko ekintzak bultzatuko ditugu. Iazko martxoaren 8an, adibidez, DBHko ikasleengana jo genuen, egun berezi horretan marrazki batzuen bidez parte hartu zezaten. Herrian antolatu zen kros batean, bestalde, emakumeei galtzerdi pare bana oparitu genien sari gisa.
Aurten oso subentzio txikia eman digu Emakumearen Institutuak eta gu ez gaude oso ados dirua banatzeko dituzten erizpideekin. Hori dela beraietaz paso egitea pentsatu dugu eta gure gisara ibiltzea. Guk gurea egingo dugu baino beraiekin kontatu gabe.


**ARTEKARI**
TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA
**LESAKA:**
• Astelehenetik asteazkenera 9tatik 13tara eta 16etatik 20tara
• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara
**Non:** MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 63 70 50
**BURLATA:**
ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 133328•133346. Faxa: 133713
**Non:** La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitorpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

## IRAKURLEAK MINTZO

**Leitzako Udalari:**

Abenduaren erdialdera, Leitzako hainbat lekutan, lanpostu eskeintza bat irakurri nuen. Bertan, Eguberri hauetan umeekin lan eginen zuten hiru begirale behar zituzten. Horretarako 18 ordu betetzeko programa bat prestatu behar zen, aurkeztutako programen artean egokiena aukeratuko zutelarik. Lagun batek eta nik, programa prestatu eta eskatutako epean aurkeztu genuen Udaletxean. Hemen, erantzunarekin epe laburrean deituko zutela esan ziguten. Jadanik oporrak bukatu dira, eta ez dugu Udaletxearen inongo erantzunik jaso. Honetaz gain, udaletxeak hiru lanpostu hauek ez ditu aurrera eraman, hau da, umeek ez dute ez begirale ez programarik eduki.

Honen aurrean duda batzuk dakuskit:

Ez al genuen erantzun bat jasotzeko eskubidea? (Baiezkoa edo ezezkoa).

Udaletxeak hiru lanpostuen eskeintza kaleratzen badu, ez al da bere eginbeharra hauek aurrera eramatea.

IRUNE ALKORTA
LEITZA (NAFARROA)

**Ikusiko dugu elkar!**

Kaixo. Sentitzen dut gure gurasoen hizkuntzan ez mintzatzea, ez zidaten erakutsi. Egitan ez dakit eskutitz hau nora doaien, bainan gure aitaren herria ezagutzen duten norabait izatea espero dut: Etxalar. Gurasoek TTIPI-TTAPA jasotzen dute hemen EEBBetan, bainan ez ulertzeak izorratzen nau. Gure aitak gaztelera bakarrik ikasi zuenez –garai haietan euskara debekatua zegoela badakigu– zailtasunak ditu artikuluak ulertzeko.

Badakit aunitz eskatzea litzatekeela, bainan Etxalar nola doaien jakin nahi dut, baita nere familia ere: Xabier eta Axun Bizente, Jose Mª eta Kontxi Maia eta Luis Mª eta Arantxa Maia. Otsailean Txetxo Ibarren nere lehengusua ezkonduko da Etxalarko Udalean.

Sentitzen dut gaztelera eta inglesa soilik ulertzea, bainan horrelaxe da kontua. Etxalarko berriren bat bidaltzea eskertuko nuke. Gero ikusiko dugu elkar!

Mª JOSE MAIA
MJMAIA@AOL.COM

**Kaixo Beltza**

Egun luzeak izan dira zuretzat azken urteotan igaro dituzunak. Familia eta lagun artetik eraman zintuzten, herria maitatzea zenuela delitu. Ongi dakigu, herriaren dignitatea eta askatasuna aldarrikatzearen truke. Inork izan dezakeen dohairik haundiena kenduz.

Zure borroka eredutzat izan dugu, poliki-poliki gizarte berria eraikitzeko, solidaritate eta justizian oinarritua, eta horrekin batera denon artea egin beharreko lana dela erakutsi diguzu.

Bihotzez atera zaigun omenaldi txiki hau eskaini nahi dizugu eta jakin ezazu aurrerantzean ere, zurekin izanen gaituzula. Ez da makala kartzelan alferrik galdu dituzun urteak bapatean ahaztea, baina zuretzat erraxagoa izan dadin gogoan izan ondoan gaituzula.

Bizi zure askatasuna, merezi duzu eta! Ongi etorri Beltza!!

ARESOKO AUZO ASANBLADA

**Zubietako Kotetori erantzunez**

Zubitan berriz ere oilarra kukurrukuka hasi da, lastima oraingoan oiloa falta zaiola. Badirudi gure Koteto ongi ez gobernatzearekin kezkatuta dagoela. Ahaztu zaio nonbait bera zortzi urtez gobernu buru izan zela edo gehiegi oroitzen ote da beretzat gauzak hain ongi joan zirenета. Gainera, zuloak aipazen ditu eta bi zulo klase daudela esanen nuke: batzuk, legarra eta zementuarekin tapatu behar direnak eta beste batzuk, aldiz, herritarron poltsetatik tapatu beharrekoak.

TOMAS

> Norbaitek Internet bidez ailegatzen zaizkigun gutunei erantzun nahi eta ezin badu, **ttipi-ttapa**ren bitartez bidali dezake nahi duen mezua.

**Xabier Nieto berriro gure artean**

Xabier Nieto «Beltza», Aresoko semea, otsailaren 3an aske utzi zuten (Espainia eta Frantziako espetxetan) azken sei urte hauek pasa ondoren. 1992ko urtarrilaren 27an atxilotu zuten lehenengo aldiz estatu frantsesean, han Pau eta La Santé espetxeetan eduki zuten 1993ko azaroan Espainiar estatura extraditatu zuten arte. Espainiako Carabanchel, Navalcarnero eta Bonxe kartzeletan eduki dute 1995ko abuztuaren 8an baldintzapeko askatasuna eman zioten, Frantziak ezarritako zigorra Espainiako Epaitegi Gorenak onartzuen zuen edo ez erabaki bitartea. Epaitegi Gorenak zigorra berretsi zuen, berriz ere 1997ko urtarrilean kartzelara itzuli behar izan zuen gelditzen zitzaion zigorra betetzera. Azken urte hau Iruñeko espetxean igaro du.

Otsailaren 3an aske utzi zuten, bere jaioterria den Areson ongietorria egin zitzaion. Bertan 150 lagun bildu ginen omenaldia eskeintzera. Aresoko 25 dantzarik aurreskua dantzatu ondoren, lore sorta bat oparitu zitzaion. Herriak eta Amnistiaren Aldeko Batzordeak «ongi etorri» hitzak eskaini zizkioten. Gero, Xabier Nietok berak, hitzez, bertara agertutakoak agurtu zituen eta segidan trikitixaren doinuan kalejiraz Pake-Toki elkartera joan ginen. Bertan herritarrek prestatutako arratsaldekoaz bukatu zen ekitaldia.

Ekitaldian zehar liskar txiki bat suertatu zen, hain zuzen ere, Aresoko herritar bat omenaldia zapuzten saiatu zen bere traktoreaz bertan bildutakoak eraso baitzituen.

Xabier Nieto orain aske egon arren, ezin dugu ahaztu ia 600 euskal preso politiko Espainiar eta frantziar kartzeletan dispertsatuak, zigortuak, gaixorik eta bahiturik dauzkatela. Hauek ere etxean nahi ditugu, orain eta baldintzarik gabe.

LEITZA ETA LARRAUNGO
AMNISTIAREN ALDEKO
BATZORDEAK


muñeca de Trapo
IRUN
Luis Mariano, 35
Tel.: (943) 62 52 55

koxkonta
SAGARDOTEGIA ZABALIK

Paregabeko idi-txuletak
Deitu erreserbak egiteko
Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • LESAKA

LARRALDEA

SAGARDOTEGIA
Astearteik ortzirala Betatik aitzinerat Larunbata eta besta egunetan zabalik
✆ 45 21 21 • LEKAROZ

Xirgil ileapaindegia
✆ 631462 • Altzate 1 • BERA

ttipi-ttapa internet
http://www.oneomix.es/ttipi-ttapa
E-mail: ttipi@oneomix.es

KOLABORAZIOAK

**Txomin MINDEGIA** *Doneztebetik*

# Seme-alaben inguruan



Gurasook seme-alabei buruz solasten hasten garenean, ikaragarri maite ditugula erran ohi dugu, eta baita haien inguruan hartzen ditugun erabakiak euren onerako hartzen ditugula ere. Ez ditugu, ordea, horren ongi eta gustora hartzen bertzeen kritikak. Izan ere, horrelakoetan laister demontre aipatzen dugu seme-alabei buruzko erabaki baten aitzinean, gu eta gu bakarrik garela eskubidea dugunak. Aski agudo haserretu ere, eta ea nor den muturra bertzeen gauzetan sartzeko galdetu modu txarrez.

Jarrera honekin ez zait niri iruditzen inongo abantailarik lortzen dugunik. Jendea, ingurukoak, alegia, beldurtzea bertzerik ez dugu lortuko, eta horren ondorioz, hurrengoan haurrei edo guri deus ez erratea. Hori lortu nahi badugu, tira aintzina! Egin dezagun irla bat familia bakoitzarekin! Baina ez eskatu gero gizarte plurala eta zabaltasun haundikoa izatea, bide hori jarraituz justu kontrakoa lortuko baitugu.

Bertze jarrera, niri bidezkoena iruditzen zaidana, honako hauxe izanen litzateke: Haurrak denen artean hezitzea, hau da, denek parte hartzea haurren heziketan, bai karrikan eta baita bertze edozein lekutan ere; edozeinek haurrekin suelto solastu ahal izatea gauza honetarako eta txarretarako berdin; haurrek edozeinekin harreman estuago izatea, eta ez gurasoak bakarrik pribatizatzea seme-alaben bizitza, ez baitira haurrak inorenak, ezta gurasoenak ere.

Haurrak gizakiak dira eta, gizaki gisa, libreak hazten saiatu beharko genuke; erabakitzen irakatsi beharko genieke, ez, ordea, gure aginduak betetzen, ez gure ispilu izaten; ez diegu guk eman behar interesatzen zaiguna; konfidantza eta konplizidadea izan daitezke klabeak, hor egon daiteke koxka, konplizeak izatea, elkar ezagutzea, alegia.

**Haurrak gizakiak dira eta, gizaki gisa, libreak hazten saiatu beharko genuke; erabakitzen irakatsi beharko genieke, ez, ordea, gure aginduak betetzen, ez gure ispilua izaten; (...); konfidantza eta konplizidadea izan daitezke klabeak**

Honekin guztiarekin ez dut erran nahi, ez gaizki ulertu, gurasook bertzeen eskutan utzi behar dugula seme-alabena, ezta gutxiagorik ere. Guk dugu ardura haundiena, jakina, eta horri aurre egin behar diogu naturaltasun guztiz, autoridadea, ez autoritarismoa, galdu gabe. Baina ardura gehiena izateak ez digu haurren jabetza ematen, alderantziz, ardura hartzen badugu errespetoz jokatu beharko dugu gure seme-alabekin, izan ere, pertsonak baitira.

Eta azkenik, euskaldun zintzoek erraten dutena: barka iezazkidazue gaizki erranak eta probextu gustokoak.

**Izaskun ABRIL** *Beratik*

# Euskararen inguruan



Azkeneko egunetan euskararen inguruan eztabaida latza sortu egin da, D ereduan ikasten ari diren ikasleen hizkuntza maila dela eta. Jatorrian Peio Salaburuk, EHUko errektoreak uste du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak *inbertitutako* diruak ez duela emaitza onik ematen, euskaraz soilik ikasten duten haurrek ez baidute erakusten behar bezalako hizkuntza mailarik.

Salabururekin bat nator ikasleen hizkuntza maila salatzen duenean, baina onartzen ez dudana zera da, salaketa D ereduan ikasten duten ikasleei mugatzea, arazo hau gaineko hizkuntzetan antzekoa izanik. Eraberean, onartezina eta arriskutsua iruditzen zait gaia planteatu dituen terminoetan egin izana, hau da, hizkuntza politika errentagarria den ala ez. Onartezina euskararen normalizazio prozesua parametro ekonomikoetan neurtzea, nahiz eta jokaera hori hedatuen izan gure politikarien artean eta arriskutsua ikusten dut kultura eta hezkuntza gaiak aipatzerakoan bi kontzeptu nagusitzea: Inbertsioa eta errentagarritasuna, erabilera horrek dakarren arriskuarekin: proiektuen kalitatea neurtu eta baloratu beharrean errentagarriak diren ala ez aztertzea eta honartzea ala atzera botatzea.

**Onartezina da euskararen normalizazio prozesua parametro ekonomikoetan neurtzea, Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa hain konplexua den bitartean.**

Interesgarria iruditzen zait Salaburuk aipatutako hizkuntza maila eskasaren inguruan zerbait komentatzea. Goian erran dudan bezala ez dut uste arazo hau euskararekin bakarrik lotu behar dugunik, nabaria baita bertze hizkuntzetan ere somatzen den zerbait dela; eraberean, ez genuke mugatu behar arazoa hezkuntza mundura, gizartearen bertze arloetan ere nagusitzen ari baita: komunikabideetan, politikan, kulturan, etab... Hizkuntzaren degradazio hau aztertzerakoan, hainbat puntu hartu beharko genituzke kontuan:

1. XX. mendearen bukaeran ikus-entzunezko komunikabideak inposatu egin dira eta elkarren arteko lehia dela eta kalitateak nabarmenki behera egin du.
2. Nahiz eta gero eta liburu gehiago argitaratu guttiago irakurtzen da, liburuaren tokia telebistak eta ordenagailuak hartu dute.
3. Egunkari eta aldizkarietan hitzak zuen lehentasuna galtzen ari da, argazkiek gero eta toki gehiago hartzen duten neurrian.
4. Gaur egun garrantzitsuagoa da ahalik eta informazio gehien pilatzea, funtsezkoak diren kontzeptu anitz ulertzea baino.
5. Hizkuntza sintektikoa inposatzen ari da, hizkuntzak dituen hainbat baliabide alde batera utziz.

Zerrenda motzegia, baina hausnaketarako beharrezkoa.

## PRENTSATIK BILDUTAKOAK



Diario de Noticias, 98ko otsailaren 3a

*«Ez dut euskarari buruz inongo erabaki tremendurik hartu. Bertzerik gabe erdaraz eskribitzen ari naiz. Egia da baita ere azkenaldi honetan euskaraz irakurtzen dudan gauza bakarra ttipi-ttapa dela».*

**Eduardo GIL BERA**
Narbarteko idazlea
Diario de Noticias 98-II-3

*«Niretzat oso esperientzia polita izan da lehen mailako eskuz binakako txapelketa jokatzea. Nik uste ongi etorri zaidala ikusteko hor goian jokatzeko gauza asko ongi egin eta asko ikasi behar direla».*

**Asier OLAIZOLA**
Goizuetako pilotaria
Egunkaria 98-I-28

## 11 GALDERA LABUR



**Mirian LIZARDI**
21 urteko aranztarra

- **Herriko iñauteriak edo bestak nahiago dituzu?**
- Iñauteriak, herrikoiagoak dira.
- **Mozorroetan emakumeak falta al dira?**
- Pentsatzen dut mozorro atera nahi duen guztia ateratzen ahal dela.
- **Hurrengo egun libreetan nora nahi duzu joan?**
- Europako estatu batzuk ezagutu nahi ditugu: Alemania, Holanda eta abar.
- **Errotazar harategian egiten duzu lan, zein haragi duzu gustokoen?**
- Haragia baino nahiago dut egiten dugun foie-a.
- **Igandetan lagunekin egon edo mendira buelta bat?**
- Lagunekin mendira buelta bat.
- **Ze animali duzu gustokoen?**
- Lau hankako zakurrak.
- **Asteko egunik hoberena?**
- Ortziral arratsa Arantzan.
- **Noizbait pala txapelketa batetan ikusiko al zaitugu?**
- Baliteke, baina oraindik berde nago.
- **Itxetik kanpo bizi zara aspaldixko. Zer da gehien faltan botatzen duzune?**
- Amak prestatzen duen jatekoa.
- **Bizitzeko zer nahiago duzu, baserria edo pisua?**
- Biak ezagututa baserria, dudik gabe.
- **Nora ez zinateke joanen besta egitera?**
- Diskoteketara.




EUSKARA




## 'Hemen euskaraz egitea zure esku dago' kanpaina

*«Hemen euskaraz egitea zure esku dago»* izenburupean kanpaina burutzen ari dira Baztan, Malerreka, Leitzaldea eta Bortzirietako Euskara Zerbitzuak. Kanpaina honen barnean, aldizkari honekin batera jaso duzun liburuxka argitaratu dute.

Kanpainaren helburu nagusia, udalaren eta herritarren arteko harremana euskaraz gauzatzea izanen litzateke. Honela, argitalpenean erraten denez, *«udalak zuri harrera euskaraz egiteko prestatzen du bere burua eta Herriko Etxean ere euskara erabiltzen ahal duzu, ahoz zein idatziz»*.

Udalari euskaraz egiteko adibide errex batzuk ere ageri dira liburuxka honetan.

IPARRALDEA



**Jean Aniotzbehere, Sarako auzapeza, Heletan egon zen, euskal departamenduaren aldeko hautetsien biltzarrean** Artxiboa

# Hautetsiak Euskal Departamenduaren alde

Heletan bildu ziren urtarrilaren 24an

TTIPI-TTAPA

Lapurdi, Behe Nafarroa eta Xuberoa bilduko lituzkeen Euskal Departamendua sortzearen aldeko hautetsiak urtarrilaren 24an bildu ziren Heletan. Datorren martxoaren 15ean bututuko diren kantonamenduko bozketan, departamendu horren alde dauden hautagaiendako boza eskatzea erabaki zen Behe Nafarroako herrian egindako Biltzarrean.

Euskal Departamenduaren aferaz luze eztabaidatu zen eta bildutakoen eritzi ezberdinak ezagutzera eman ziren. Honela, Nicole Péry, Baionako PSFko deputatuaren ustez, *«departamendu berriari buruzko eztabaida urte batzuz gibeleratu beharko da»*. Péryk errandakoaren arabera, *«ezin da euskal departamendurik sortu, aitzinetik Asanbleatik pasatu gabe. Lege proposamena aurkeztea, berez, errexa da, baina ez du deustarako balio onartzen ez bada»*. Horregatik, aitzinetik Parlementan gehiengo bat osatu nahiean omen dabil. Jean Aniotzbehere, Sarako auzapezak eta elkarteko lehendakariak, departamendua soilik edo zerbait gehiago nahi den galdetu zuen.

BERTIZ

## Kubarako bidaiaren zenbaki saritua jakinarazi da

Bertizko Turismo Partzuergoko Merkatarien elkarteak Kubara antolatutako bi lagunendako bidaiaren zozketan honako zenbakia izan da sariduna: 141.897.

Doneztebeko Amaia lurrindenda-ileapaindegian banatu da eta saridunak, Elizondoko Txusmi Egurrola eta Isabel Olabe senar-emazteak suertatu dira.

## Bertizko Parkea UNESCOren nazioarteko sarean

Nafarroako Gobernuak Bertizko Natur Parkea UNESCOk bultzatzen duen Biosferaren Erreserbarako Nazioarteko Sarean sartzea eskatuko du. Izan ere, Espainia nahiz Europa mailan berritzailea izanen den esperientzia egin gogo du Nafarroako Gobernuak Bertizen, gizonak itxuraldatutako basoa, lehen mailako basoan bihurtzea, hain zuzen. Hau dela eta, otsailaren 4an lan jardunaldia burutu zuen Bertizen Ingurugiro saileko kontseilariak.

Optika
BEGI LAGUNAK
Karrika Nagusia • SENPERE
Tfnoa: 05 59 54 57 59
Idekia asteartetik Larunbata arte


GANTXIKI
Trinketa
SENPERE
✆ 59 54 50 77

Dia %
Autozerbitzua deskontua
Hamabostero ofertak
Zatoz eta ikusi
Eztegara, 6
✆ 63 14 03 • BERA

## BERA

# Etzi ospatuko dira kaldereroak eta heldu den astean Iñude eta artzaiak

Iñudeetan ateratzeko derrigorrezkoa da entsaio orokorrera agertzea

ASIER GOGORZA




Asteburu honetan ailegatuko da Hungariako zingaroen konpartsa herrirat, beren kantu eta zartagi-hotsekin iñauteriak gain-gainean ditugula abisatzeko. Gaur zortzi, izan ere, Ortzegun Gizen ospatuko dute gaztetxoek, 12ak artio auzoz-auzo "zingar-arraultze, bat ez bada bertze" eskatuz, eta otsailaren 22an, berriz, Iñude eta Artzaien txanda etorriko da. Nagusien "zingar-arraultze" biharamonean burutuko dute bestondoa gainditu dutenek, edota iñudeetan atera ez zirenek. Gainerakoek arratsalderarte espetu beharko dute, mozorroak jauntzi eta ostatuz-ostatu ibiltzeko.

**ENTSAIOAK**

Gaur eta bihar, otsailak 12-13, kaldereroetako entsaioak eginen dira ilunabarreko 7,30etan Iamotenean. Iñudeetakoak, bertzalde, otsailaren 19 eta 20an burutuko dira (8tan), Eztegara pilotalekuan, ohi denez. Denentzako derrigorrezkoa omen da otsailaren 20ko entsaiora agertzea.

### Telletxearen errekurtsoa onartu du Portugalgo Auzitegiak

Portugalgo Auzitegi Gorenak Jose Luis Telletxea beratarraren asilo eskaera ukatu egin zuen iazko abenduan, bainan erabaki haren kontra jarritako errekurtsoa onartu egin dute orain. Beraz, 30 eguneko tartea izanen du Telletxearen abokatuak asilo politikoaren aldeko argudioak aurkezteko, eta horren ondoren ezagutuko da Portugalen gelditzeko eskubidea onartuko dioten ala ez.

Telletxea 1991.etik errefuxiatuta bizi da Portugalen.




### Baque torneoan txapeldun

Iban Zubieta beratarrak eskuz banakako Baqué torneoan garaipena lortu zuen kadete kategorian, Zubillaga alegiarraren aitzinean 18 eta 7ko emaitzaz nagusitu ondoren. Hilbeltzaren 18an ospatu zen finala Azpeitian, eta erran behar da Iban ezker eskuaz jokatu zela gehienbat, eskuina mindua zuen-eta.

Gipuzkoako torneoen erregea den honekin, 18 txapel bururatu ditu dagoeneko beratar gazteak, eta pilotan etorkizun haundia duela erakutsi du orain artekoan.

### flash

**Uxua**
Emakume Taldea Martxoaren 8a delaeta antolatzen den Emakumearen Astea prestatzen hasia da honezkero, eta urtero egin ohi duten erakusketarako koadro, eskulan, idazki eta abarrak bereixten hasteko deia luzatu die herriko emakumeei.

**Kontzertua**
Otsailaren 20an, ortzirala, *«Skunk»* iparraldeko reagge-ska taldeak joko du Pui ostatuan, arratseko 10ak aldera.

**Osasun Zentrua**
berritu eta haunditzeko obrak "Ciabar Obras y Construcciones S.L." enpresak hartu ditu bere gain. Plazoek agintzen dutenez maiatza alderako akautua behar luke Osasun Zentru berriak.

**Ski Kanpaina**
Jesusen Bihotza eskolako ikasleak bortz egunez Erronkari bailaran izan dira eskiatzen, eta Labiaga ikastolakoek ere aukera berbera izanen dute hilaren 22tik 27rat.

**TTIPI-TTAPA telebistaren**
proiektuari bere oniritzia eta bertze erakundeengana joateko laguntza eskaini dio Berako Udalak ahobatez.




© 631076 • BERA

GRUPO ZURICH
ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 — BERA — © 63 07 63

Errekalde ostatua
Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak
Ttnoa: 630259 - BERA

# LESAKA

## Bortz eskari aurkeztu dira herriko irrati-lizentzia eskuratzeko

Nafarroako Gobernua zortzi irrati-lizentzia berri banatzeko egiten ari den lehiaketako gutunazalak urtarrilaren 30ean zabaldu zituzten. Nafarroa osoan hogeita hameka erakunde aurkeztu dira, irrati-lizentzia horien bila. Lesakan FMko 100,9an aritzeko, Xorroxin Irratiarekin batera, bertze lau eskari agertu dira proiektua aurkeztuz: Radio Blanca, Canal Mundo Radio Navarra, Pedro A. Vega Hernandez eta Juan Antonio Lekuona Narbarte. Aipagarria da Xorroxin Irratiak –eskarien artean euskara hutsean aritzen den bakarra–, irrati-lizentzia beretzat izan dadila eskatuz, hainbat atxikimendu jaso dituela herrian, bertzeak bertze, Herriko Etxeak, bertso eskolak, Arrano eta Batzoki elkarteak, musika taldeek, bi ikastetxeek... sinatutakoak.



**Josetxo, Xorroxin irratiko langilea**



**Zaku-zaharrak izanen dira igande arratseko protagonistak** Argazkia: Goiko

# Iñauteriak otsailaren 22tik 24ra ospatuko dira

## Ortzegun Gizen egunean 'Arraultze-arrautze' eskatuko da

AITOR AROZENA

Ortzegun Gizen egunean 'Arraultze arraultze, zingar arraultze, bat ez bada bertze' eskatuz, hasiko dira, urtero bezala, Iñauteriak.

Igandea izanen da egun haundia eta arratsean zaku-zaharrak aterako dira, txarangaren laguntzaz herriko ibilbidea eginez. Akautzeko, plazan xehetuko dituzte zakuak, belar idorra gazteendako jostailu bezala utziz. Lehenbiziko mozorroak, ordea, larunbat gauean ikusiko dira eta beraiekin batera, besta giroa nabarituko da.

Astelehen eguerdian karrozen desfilea izanen da eta arratsean, Beti Gaztek antolatutako mozorro lehiaketa eginen da. Igande eta astelehen arratsean musika izanen da plazan, *'Gaubela'* taldearekin.

Baserri auzoetako gazteek asteartera arte luzatuko dute besta giroa. Fraindarrak –izena lehenbailehen eman behar dute Ziobin– eta Goitarrak baserriz baserri ibiliko baitira goizean. Lehendabizikoek akordeoia eta eskoba kiderra astinduko dute beraien ibilaldian eta bertzeek, berriz, trikitixa eta krixkitinak. Bazkal ondoan herrira jautsiko dira.



## flash

**Oihan probetxamendua**
Eskolamendi inguruan dauden 16.746 insignis pinu aprobetxatzeko oihan enkantea deitu du Herriko Etxeak. 8.400 $m^3$ zur eta 580 $m^3$ su-egur emanen dute eta hasierako prezioa 42.580.000 pezetakoa da. Proposamenak martxoaren 4ko eguerdiko ordubata baino lehen aurkeztu beharko dira udal bulegoetan eta biharamonean zabalduko dira.

**Osasun Zentruak**
4.600.000 pezetako dirulaguntza jaso du Osasunbideatik. Diru kopuru hau instalakuntzak moldatzen erabili beharko da.

**Euskal Herriko sokatira**
txapelketan parte hartuko dute Beti Gazteko tiralariek, kategoria guzietan. Lehen jardunaldia igande honetan izanen dute Leioan. Euren maila erakutsi eta txapelen bat ekarri asmoz arituko dira.

**Landareei buruzko solasaldia**
Otsailaren 19an, arratsaldeko 7etatik aitzinera, landare eta arbolen zainketaz, txertoetaz eta bertze gaietaz arituko da Jagoba Errekondo Matxinbeltzenean, Herri Eskolak antolatuta.

XATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 63 70 27 LESAKA

ZALAIN
JATETXEA
EGUNEKO MENUA ETA KARTA
Zalain Auzoa
✆ 63 11 06
BERA
Boda eta banketeak ematen dira

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 637127
LESAKA

ANA
janaridenda
Bittiria, 41 • ✆ 63 79 44
LESAKA

## ETXALAR

# ttipi-ttapa telebistari oniritzia eta babesa eman dio Udalak

Eremuko eta Nafarroako erakundeetara joateko laguntza emanen dio

PELLO APEZETXEA

Jakina denez, bidean da dagoeneko TTIPI-TTAPA telebista. Duela bi hilabete proba-seinalea ikusten ahal da, 49. kanalean. Bertze bi hilabete baino lehen ikusi ahal izanen ditugu iduriak. Hori dela eta, atxikimenduak eta laguntzak biltzen ari da, Udalena horien artean. Bortzirietako Udalei eskatu eta denek baiezkoa erantzun diote, Etxalarkoak bezala.



**Pilota plazaren aintzin-pareta moldatzen**
12 zm. lodierako harrizabalekin estaltzen ari dira aintzin-pareta. Harria horman finkatzeko, porlanaz gain, burnizko tornilloak erabiltzen dituzte. Pello

### Herria edertzeko lanak

Lanik gabeko bi langile 7 hilabeterako kontratatuko ditu Udalak, Gobernuko dirulaguntza eskuratzen badu, eskatu bezala. Langile horien zeregina, batez ere, herriko zenbait txoko moldatzea izanen da. Aurten, Etxeberriko zubi ingurua eta errekara doan bidea moldatu; Uhartea etxeko ingurua zabaldu; Kanposantu azpiko bideari zola eman; Arroseko iturria berritu; Arrosetik errekara doan bidea moldatu; Eskola zaharretako teilatua konpondu.

### Mendirako proiektuak

Mendian ere zenbait hobetze lanetarako dirulaguntza eskatu du Udalak Nafarroako Gobernuan. Pistak hobetzeko: Orizki-Irazako-Orainbeta zeharkatzen duena; Lakateneko Bordatik Marimigeleneko Bordarakoa; Urtsumiatsa-Burrarte-Lekunberrikoa. Pista berriak irekitzeko ere bai: Otanegin, Aierdin eta Txorimarkailen. Gainera, Txorimarkailen eta Azkuko mindegian zuhaitzak bakantzeko.

## flash

**Bake epailea izendatu du Udalak**
Lau urte bete ditue-la Jose Manuel Bizente Arburuak, eta izendapena berritzea dagokio Udalari. Berriz ere hautagai bakarra bera zenez, Jose Manuel izendatu du Udalak bertze lau urterako.

**Xorroxin irratiari babesa**
Gobernuak Lesakarako ematea pentsatzen duen irrati lizentzia, bertze batzuez gain, Xorroxin Irratiak eskatu du. Etxalarko Udalak Xorroxinen eskaera horren alde egin du, Gobernuaren aintzinean, eta bere babesa gerorako ere eskeini dio.

**Oihan loteak**
Otsobi, Irumugarri, Burrarte eta Txorimarkailgo 9.000 pinu saldu dira, 1.600 metro zur eta 1.100 metro egur dutenak. Denetara 8 milioi eta gehixeagoko prezioa izan dute.

«USOA»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14
ETXALAR

OKANE
HARATEGIA • URDAITEGIA
Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxozgarbitu nahi baduzu, deitu!
Gu arduratuko gara horretaz.
Termita eta Polillen kontrako tratamendua
BERA DESINFECCIONES
✆ 63 01 55
BERA

EROSLE
LESAKA
Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena
Frexkuena zugandik hurbilago
Bittiria, 67 - ✆ 637264

TABERNA S.L. GARRAIOAK
Import - Export
Zerbitzu erregularra
Euskadi, Errioxa, Zaragoza, Burgos, Santander eta Frantziako Hego-mendebaldean
IRUN
Tel.: (943) 62 23 02 - Mobila: 908 77 26 83

LEGARRA
Legarrea, 9 • ✆ 63 70 30 • LESAKA
IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU
• Liburuak
• Papertegia
• Tabakoa
• Plastifikazioak egiten ditugu
• FAX publikoa
• Enkuadernatzeak
• Inprenta lanak

## IGANTZI




Iazko eta duela urte batzuetako mozorroak. Umorea eta bestarako gogoa ez da batere aldatu

# Ortziral eta larunbat honetan ospatuko dira iñauteak

Igantziko Udalbatzak ere babesa eskeini dio Xorroxin Irratiari

OSKAR TXOPERENA

Igantziko iñauteak ere itxura aldatu dute azken urteotan, argazkietan ageri den bezala. Aurtengoan aste honetan bertan izanen ditugu, otsailaren 13 eta 14an. Ortziralean Berrizaunen ibili ondotik afaria izanen dute mozorroek eta larunbatean gaineko auzoak eta herria pasatuko dituzte. Haurrek larunbatean izanen dute bere eguna ere, arratsaldez herri inguruan ibiliko baitira mozorrotuta. Halere, heldu den astean izanen dituzte bestarik haundienak, asteazkenean eskolan eta ortzegunean, Ortzegun Gizeneko eskea.

### Udal babesa Xorroxin Irratiari

Urtarrilaren azken egunetan egindako batzarrean bertze zenbait gaien artean Xorroxin Irratiak egindako babes eskaria eztabaidatu zuten zinegotziek. Nafarroako Gobernuak Lesakarako banatu behar duen lizentzia Xorroxineri ematearen alde agertzea eta, lizentzia lortuz gero, emisioak gauzatzeko behar den laguntza ematea eskatzen zuten Xorroxinekoek. Bere osotasunean eta ahobatez onartu zuten zinegotziek eskaria.

### Biltoki-ttikiko lokalaren inguruan eztabaida

Udalbatza berean Biltoki-ttikik lokalik gabe pasatu dituen bi urte hauek aztertu zituzten zinegotziek, Biltokikoekin eta Guraso Elkarteko ordezkaritzarekin. Gaia hagitz zaila dela ikusi zen bertze behin ere, herrian momentuan horretarako leku egokirik ikusten ez delako edo erabiltzeko modukoak ikusten direnak bertze zerbaitetarako erabiltzen direlako. Dena den, elkarlanean segitzeko asmoa agertu zuten, epe motzera irtenbide zaila ikusten bada ere.

### Biltokiko urteroko batzarra

Urteroko batzarre orokorra otsailaren 28an eginen du Igantziko Biltoki Elkarteak. Oraindik egun batzuk falta direnez, hurrengorako utziko dugu bertan eztabaidatu beharreko gaien zerrenda.

Lurrindenda
Marian Mendiberri
Estetika
Beheko Plaza 8 ✆ 637791 • LESAKA

CONSTRUCCIONES MECANICAS
CMB BERRIZTUN S.L.
Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadorak
Igantziko Bentak • ✆ 627572 • Faxa: 637313

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
✆ 627573 • LESAKA

SAROBE
okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK
Altzate, 5 • ✆ 63 00 83 BERA

LANCHAS
• Parketak - Tarimak
• Kutxillatzea eta bernizatzeak
• Estaldura orokorrak
Bera ✆ 630735 • IRUN ✆ (943) 622305



DROGUERIA MOLINERO
• DROGERIA • LURRINDEGIA •
*Barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoak*
Eztegara 19 • ✆ 63 02 40
BERA

## ARANTZA

# Asteburu honetan izanen ditugu Iñauteriak

Ortzegun eta ortziralean baserriz baserri ibiliko dira mozorroak

ELIXABET ETA GARBIÑE

Asteburu honetan ospatuko dira iñauteriak, ortzegunean, 12, hasi eta iganderaino. Azken hilabete hauetan bizpahiru mozorro bilera izan dira eta egun horiek antolatzen ari dira. Aurten badira mozorro berriak eta azken urte hauetako mozorro taldean gehienak berriak izanen dira. Ortzegun eta ortziralean baserriz baserri ibiliko dira, bazter guziak harrotuz. Larunbatean, hau idazterakoan zehaztu gabe zegoen talde batek joko du plazan eta, urtero bezala, zerri eder bat zozketatuko dute mozorroek. Igande eguerdian frontoian aizkolariekin batera, bertsolariak ere arituko dira, Peñagarikano eta Sorozabal, hain zuzen.



Umorea nagusituko da asteburu honetan

## UEMAren Eguna maiatzaren 24an ospatuko da Arantzan

Udalerri Euskaldunen Mankomunidadeak urtero antolatzen duen UEMA Eguna aurten Arantzan izanen da. Horretarako, datorren otsailaren 21ean, larunbatean, arratsaldeko 6etan bilera bat eginen da herrian, egun hori antolatzeko batzorde baten eraketarako.

Deialdi honetara herriko elkarte guztiak deitu dira, denen artean lana egiteko. Halere, elkarteena ez ezik, herritar guzien laguntza beharko da.

Bilera horren ondorioz sortuko den batzordea, Udalerri Euskaldunen Mankomunidadeko Batzordearekin bilduko da. Ea jendea animatzen den deialdi horretara joateko, Arantzan egun hori, merezi eta ahal bezain ongi prestatzeko.

IKUSMENAREN BERRESKURATZEA
• Miopia
• Bista alfertua
• Estrabismoa
• Begi lausoak-kataratak

GIHARRE ARAZOAK
• Bixkortzea
• Artritia, erreuma
• Artrosia, Lunbalgia
• Bihurdurak, etab...

KONTSULTA ORDUTEGIA
Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldez 2-7etara. Ordua eskatu

MAGNETISTA NATUROPATA
✆ (943) 62 30 55
San Marcial, 7-4 IRUN

ONDORIOETATIK INDARTZEKO
• Diabetia
• Asma
• Larru azaleko alergia
• Buruko mina
• Zizareak
• Oinen izerdia
• Prostata, etab...


EKAITZA kafetegia
GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA
Lagunekin elkartzeko toki egokia
Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 LESAKA


MARTIKO
Gure baserrietako produktuak
✆ (948) 63 07 00 • Fax 63 12 13
Zalain Poligonoa, BERA

KIROLAK ZELA
Altzate 6, ✆ 63 05 98
BERA

Aranguren
Aroztegi mekanikoa
Tel.-Fax: (948) 63 72 58
Tel.mug.: 908-77 51 85
Otsango industrialdea
31770 LESAKA
• Leihoak
• Aurre-markoak
• Eskailerak
• Fabrikanteak gara



LESAKA

## SUNBILLA

# Gusto guzietarako karrozak ikusi ahal izan ziren Ihauteri-igandean

Hamasei kuadrilek hartu zuten parte aurtengo desfilean

JAIONE ETA ALBA



Carmen, Maritxu eta Roxario, missez jantziak emakumeen afarian: umorea beti adinaren aitzinetik paratzen duen hirukotea



Municheko garagardo besta antzestu zuen karrozan, zerbeza eta musika nagusitu ziren

Argazkiak: Alba

Urte berriari hasiera ona eman geniola aipatu bagenuen ere, guztia ez zen horretan gelditu, ihauterietako hiru egunak sasoi ederrean pasa baikenituen sunbildarrok.

Ortziral goizean, gazteek ihauteriei hasiera eman zieten, beren ohiko ibilbidea eginez. Haurrek ere egun berezia izan zuten, beren mozorro eta guzti atera baitziren eskolatik Ulibeltzak elkartean prestatutako txokolate goxoa edatera. Arkupeetako musika bukatu ondoren, emakumeen ordua iritsi zen, behingoan bada ere, gizonek prestatu eta zerbitzatutako afaria izan baitzuten. 70 emakume inguru elkartu ziren, izugarrizko martxaz gozatuz. Inork ezpero ez zuenean, gainera *tuna* bat azaldu zen, lehendik zegoen giro alaia indartuz. Larunbat gauean herriko ostatuetan jende ugari ibili zen eta Fondan *Nahitanahiez* taldearen kontzertua izan zen.

Igandea, espero bezala, izan zek egunik garrantzitsuena eta jende gehien erakarri zuena. Hamasei karroza izan ziren ikusgai: Herriko Etxea, Hezur Salda, Gure Bodega, Behi eroak eta maitemindutako zezena, Municheko Garagardo Besta, Spice Girls, Mus txapelketa, 101 dalmata, Xista Air Force kohetea, burgesak, Pottokiak, *«Octubre rojo»* submarinoa, Itxol berriko ardi ile apaindegia, Telepizza, alardea eta zakur bat.

Karroza bakoitzak zuen bere xarma eta guztiek egindako lana goraipatzekoa dela esan beharrik ez dago, buruko min eta neke ugariak jasan arren, urtetik urtera maila hobeagoa nabari baita. Herri bazkariaren ondoren, Jalisko eta bere taldeak dantzan jarri zituzten Ulibeltzak elkartera hurbildu ziren guztiak.

### Antzakaitz kultur taldearen bilera otsailaren 14an

Otsailaren 14an burutuko du Antzakaitz kultur taldeak bere hurrengo bilera, arratsaldeko 3,30etatik aitzinera Fonda Ostatuan. Aurtengo plangintza osatuko dute, beraz, kideen partehartzea nahitaezkoa dela azpimarkatu dute taldetik.

BEINTZAko OSTATUA
Tfnoa: 45 00 14
BEINTZA-LABAIEN

GAZTANDEGIA
Lizun
Etxeko Ardi Gazta
Petxenekoborda • Tfnoa: 45 08 62 • SUNBILLA

SANTAMARIA
Jatetxea
Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



Tel.: 450 133
451 541
Faxa: 450 334
DONEZTEBE

APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK
• Melamina taulak
• Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
• Txapaz estalitako taulak
• Entzimerak
• Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
• Pintura eta bernizak
• Bainurako mobleak eta osagarriak
• KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

ARIN ASEGURUAK
Parrokia 21
Tel.-Fax: 450266
DONEZTEBE
• Kotxeak
• Kamioiak
• Etxebizitzak
• Enpresak
• Istripuak
• Bizitza
• Aurrezkia
• Bertzeak

## DONEZTEBE

# Iñauteak otsailaren 19tik 21era ospatuko dira

### Ekitaldi nagusia larunbateko karrozen desfilea izanen da

TXEMA ALDABE

Heldu den asteko ortzeguna, ortzirala eta larunbatean izanen dira, hain zuzen ere. Dagoeneko giroa susmatzen da, zenbaitzuk karrozak prestatzen ari baitira. Dena den, aipagarriena larunbat arratsaldeko desfilea bada ere, programa zabalagoa da.

**Ortzeguna, 19:**

8etan euskal poteoa eta 9,30etan afaria Belarra jatetxean.

**Ortzirala, 20:**

9etan Titi tabernan elkartu eta baserrietako ibilbideari hasiera eman. 11etan Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleen mozorro desfilea herriko karriketan barna. 2,30etan Arkupe jatetxean bazkaria. 3,30etan txokolatada. 5,30etan baserrietan barna ibilbidea. 6etatik 7etara elizatarian dantzaldia Mikel Salaberrirekin. 8etan Ameztia jatetxean afaria *Corcor* txarangarekin.

**Larunbata, 21:**

9etan herriko karriketan barna argisoinuak *Corcor* txarangarekin. 12,30etan Arozena jatetxean bazkaria. 4etan Aparanetik aterako da karrozen desfilea, ohiko ibilbidea eginez. Ondoren, elizatarian bi sari banatuko dira, lehenengoa karroza onenari eta bigarrena mozorro onenari. Berehala iñauteetako zozketa eginen da (lehenbiziko saria zerri eder bat eta bigarrena bi afari Belarra jatetxean). 9,30etan gazte taldeen arteko afaria. Gau osoan *Corcor* txarangarekin musika.




**Iaz karroza onenari emandako saria eskuratu zuen taldea** Zaldua

### DBHko Eskola Kontseilua berritu da

Abenduan egin ziren DBHko Eskola Kontseilua berritzeko hauteskundeak eta honakoak hautatu zituzten: ***Zuzendaria:*** Mª Jesus Perurena. ***Ikasketaburua:*** Arantxi Diez. ***Idazkaria:*** Marta Legazkue. ***Irakasleak:*** Begoña Durruti, Josefa Goñi, Jesus Garcia, Gonzalo Elkano, Ane Miren Zengoitabengoa. ***Gurasoen aldetik:*** Ramon Etxebeste, Serafina Grazenea eta Mª Victoria San Martin. ***Ikasleen aldetik:*** Ainara Mindegia eta Karlos Arnedo. ***Udal ordezkaria:*** Mariaje Ganboa.



### Eskolakoak elurretan Otsagin

Aste Zuria programaren barrenean, hilbeltzaren 18tik 23ra eskolako 6. mailako 23 ikasle eta 2 irakasle Otsagin izan ziren. Abodin elurrik ez eta Belaguara joan ziren. Martxoaren 15tik 20ra DBHkoak joanen dira.

Merkealdiak
Mari Cruz
LENTZERIA
Parrokia 11
Tfnoa: 45 01 12
DONEZTEBE

IBARROLA
HAURRENDAKO ARROPA MERTZERIA
Parrokia 6 • Tfnoa: 45 04 63 • DONEZTEBE

FUNERARIA ZERBITZUAK DONEZTEBEn
MALDAERREKA, S.L.
24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

ETXANDI TXOKO jatetxea
Bazkari, afari eta gosariak
ITUREN
Tfnoa: 45 04 91

# MALERREKA

## Ezkurra zenaren omenezko pilota txapelketa otsailaren 18an hasiko da

Doneztebeko eta inguruko frontoietan arituko dira

TXEMA ALDABE

Txaruta pilota elkarteak antolaturik, Josetxo Ezkurra zenaren oroimenez burutzen den txapelketaren edizio berri bati hasiera emanen zaio datorren asteazkenean, otsailaren 18an.

Partiduak asteazken arratsaldetan, 5,30etatik aitzinera eta larunbatetan goizeko 10etatik aintzinera jokatuko dira. Asteazkeneko partiduak Doneztebeko frontoian jokatuko dituzte eta larunbatekoak, berriz, inguruko pilota plazetan (Donamarian, Urrotzen, Sunbillan moldaketak akitzen badituzte eta bakarren bat Saldiasen).

Mailari dagokionez, adinaren araberako maila guzietan arituko dira, hau da, aurrebenjaminak, benjaminak, alebinak, infantilak, kadeteak, jubenilak eta helduak.



### Makatzene lesakarrak irabazi du Aurtizko eskuz banakako I. pilota txapelketa

Lesakako Makatzene baserriko Imanol Telletxea nagusitu da Aurtizko eskuz banakako lehen pilota txapelketan, otsailaren 1eko finalean Patxi Ordokiri 22-14 irabazi ondotik. Imanolek Lesakako sokatira taldeari eskaini zion garaipena. Aintzinetik, hirugarren eta laugarren posturako norgehiagoka jokatu zuten J. Antonio Mujika eta Paxkual Taberna 'Matxitene' lesakarren artean. Sekulako peleia eta gero 22-21 irabazi zuen Mujikak. Patziku Loiarte ere aipatu behar da, hasieran *biktima* bezala ateri arren, azkenean onenekin peleian ibili baitzen. Aurtizko Ostatuak lagunduta egin da txapelketa eta bukaera bazkari eder batekin eman zioten.

## Elgorriagako etxe batean bortxan sartutakoak atxilotu dituzte

Buruak kaputxaz estalita eta pistolak erakutsiz sartu ziren

TTIPI-TTAPA

Elgorriagako etxe batean hilbeltzaren 27an bortxan sartutako lau lagunak atxilotu zituen hiru egun beranduago guardiazibilak Bartzelonan.

Gobernu Delegazioak adierazitakoaren arabera, lau lagun hauek, buruak kaputxaz estalita, bi pistola erakutsiz eta poliziaren plaka faltsuak erakutsiz sartu ziren Elgorriagako etxebizitza horretan. Bertan bi anai eta horietako baten andregaia zeuden. Hiruak lotu ondotik, 24.000 pezeta, ordulari bat, urrezko pultserak, perla koilare bat, larruzko txaketa bat, kreditu txartelak eta auto bat eraman zuten.

### Autobus zerbitzua

Doneztebe-Leitza-Iruña linea autobus zerbitzua bertze bortz urtez emanen du Mariezkurrena autobus enpresak.

### Lanak Urrozen

Urrozko Aizpeko bidea Hirurteko Planaren barnean sartu da. 1999an 16 milioi pezeta baino gehixeago inbertituko du Nafarroako Gobernuak.

## flash



### Ezkurrako lagun bat lan istripuan hila

Lazaro Lasarte Mariezkurrena, Ezkurrako Errandoneakoa, bere herrian gertatutako lan istripuan hil zen hilbeltzaren 27an. Lazarok 41 urte zituen eta eraikuntzan aritzen zen lanean. Peskonea etxea zaharberritzen ari zela, tabloi batek buruan jo zuen. Iruñeko ospitalera bizirik iritsi bazen ere, istripua gertatu eta 3 ordura hil zen. Nafarroa osoan, lan istripuan lehen hildakoa izan da aurten.

### Saldiasko iñauteak

Otsailaren 14 eta 15ean ospatuko dira Saldiasko iñauteak. Larunbatean, baserriz baserri ibiliko dira gazteak, akordeoi soinuz lagunduta. Baserriren batean bazkalduko dute. Gauez, berriz, herri afaria eta gero dantzaldia, akordeoi musikarekin.

### Lanak Urrotzen

Urrotzko baserriak eta Utxala eta Balentxenea inguruetan elektrifikazio lanak eginen dira Hirurteko Planaren barrenean. Aurrekontua 13,3 milioi pezetakoa da eta Nafarroako Gobernuak 7 milioi terdi ordainduko du.

## MALERREKA

# Ituren eta Zubietan obra eta lanak egiteko dirulaguntza eskatu da

### Herriko langabetuak hartuko lirateke

TTIPI-TTAPA

Ituren eta Zubietako Herriko Etxeek, herri hauetan egin beharreko zenbait lan gauzatzeko dirulaguntza eskatu dute Nafarroako Gobernuan. INEM erakundearen laguntza ere eskatu dute, herriko langabetuak lan hauetan enplegatzeko.



Zubietako errota moldatzen aste honetan hasiko dira

Iturenen, bi langile hartuko lirateke bi hilabeterako, hiru lanetan aritzeko. Alde batetik, elizako bidea garbitu eta zati batean zola berritu nahi da. Lan honen aurrekontua 1.171.000 pezetakoa da. Ameztiko pistan kunetak garbitzeko 556.000 pezetako aurrekontua aurkeztu da eta Lasagan, kaltzada konpondu eta berritzeko, 606.000 pezetakoa.

Eguraldi txarra eginez gero, badaezpada, ordezko bertze lan bat aurkeztu du Iturengo Herriko Etxeak, mediku kontsulta eta bertze zenabit udal eraikuntza pintatzea, hain zuzen ere.

Zubietako Herriko Etxeak, bere aldetik, errotaren inguruak moldatzeko asmoa azaldu du, 17 milioi pezetako aurrekontua aurkeztuz. Bederatzi hilabetez hiru langile enplegatuko lituzke, kanalea, labaderoa eta bi kisulabe txukuntzen. Eraberean, kanalaren bazterretik errotaraino pasealekua egiteko asmoa dago. Gai honekin segituz, aipatu behar da hilbeltzaren 23an adjudikatu zuela Herriko Etxeak errota moldatzeko lanak. Elizondoko Balarrena eraikuntza enpresak eginen du 19.524.849 ptaren truke. Europatik 13 milii terdiko dirulaguntza hitz emana da.

# Bi egur-lote aprobetxatzeko deialdia luzatu du Donamariako Udalak

TTIPI-TTAPA

Txaruta eta Amezketa inguruetan bi egur lote aprobetxatzeko oihan enkantea deitu du Donamariako Udalak. 1. lotean, Txarutan, guzira 2.758 zuhaitz aprobetxatuko dira: 443,560 m³ enbor-xehea emanen duten 2.199 zuhaitz; 409,890 m³ zur eta 202,5 m³ su-egurra emanen duten 625 pago; 2,940 m³ zur emanen duten 9 lizar eta 1,760 m³ zur emanen duten 5 haltza. Hasierako prezioa 3.724.200 pezetakoa da (+BEZ). 2. lotean, Amezketan 2.136 pinu aprobetxatuko dira, 255,91 m³ enbor-xehea emanen dutenak. Hasierako prezioa 475.835 pezetakoa da. Proposamenak otsailaren 13ko eguerdiko 1ak baino lehen aurkeztu behar dira udal bulegoetan.




GIBELEKO ALDETIK



AITZINEKO ALDETIK

**L E G A S A**

**ITXEKIBELAKOA URBANIZAZIOA**

**FAMILIA BAKARREKO ETXEBIZITZAK LORATEGIAREKIN**

Beheko solairua: Garajea eta txokoa .................. **40m²**
Lehen solairua: Egongela, sukaldea, bainua, balkoia
Bigarren solairua: 2 logela, bainua .................. **93m²**

**URBANIZAZIOA** Baztango harrixabalarekin, 12 metro zabalerako karrika, gas-depositoa, zerbitzu guziak.

**ETXE TRADIZIONALA** Baztango harriarekin egindako zokalo edo hormoina, zurezko teilatu-hegala, kanpoko zurgindegia eta pertsianak aluminioz eginak, egongela eta sukaldean balkoia, eta fatxada guzietan isolamendua.

**BARNEALDEA** Zola eta eskailerak haritzez eginak, zeramika bainu eta sukaldean, gas-berogailua, TB antena, armario enpotratuendako tartea, trinkotutako zura beiratua egongelatan.

**14.500.000 ptatik goiti + %7 BEZa**

**Legasan, eragile eta eraikitzaile**
**SAIOA Construcciones**



**E Z K A L O**

Jose Antonio Elizondo Jauna
**INFORMAZIOA eta SALMENTA:**
451518 (Doneztebe) • 23 48 30 (Iruñea) • 908. 77 76 96
*Larunbat eta igandetan zabalik ordua eskatuz gero*

## GOIZUETA

# Hilaren 22tik 24ra ospatuko dira Karnabalak

### 120 milioitik gorakoa izanen da aurtengo udal aurrekontua

ESTEBAN AROZENA

Hurrengo igandean zortzi, otsailak 22, gaueko 10ak inguruan Izkiña jatetxean mozorroen taldea elkartzen denean hasiko dira aurtengo Iñauteriak. Egun horretako afalaurrean ere igande berezia denaren seinalea izanen da herrian, *Dani, Ainara eta Eva*ren musika taldeak joko baitu plazan arratsalde eta gauean.

Beste bi egunetako programa nolakoa den badakite ederki asko herritarrek, aurten ere zuzen-zuzen eutsiko baitiete ohitura zaharrei mozorroek. Bakar bakarrik esan *Triki-take* taldearen esku egonen dela astelehena eta astearte arratsalde eta gaueko dantzaldia. Musikaren aurrekontuaren zati bat ordaintzeko erabiliko den 125.000 pezetako dirulaguntza emanen die udalak antolatzaileei, horrela erabaki zuen behintzat korporazioak bere azken bilkuran.



**Argazkiaren erdian ageri den Maritxu Iturria, 68 urteko emakumeak, hogei urtez mozorrotua atera da iñauterietan, askotan bakarrik eta azken urteetan koadrilan. Aurten ere preparatzen ari omen da.**

#### Pintadak

Goardia zibilaren zuzendaritza orokorretik herriko pintadei buruzko bi idatzi aurkeztu berriak dira Herriko Etxean. Informazio honetaz gain, pintadak garbitzeko beharrezko pausuak eman ditzan eskatzen zaio Udalari, gai honen inguruan agertutako jarreraren berri, dagokion Gobernu aginteari emanen zaiola adieraziz. Korporazioak, oraingoz, ez dio kasu gehiegirik egin eskaera honi.

#### Udal aurrekontua

120 milioi pezetatik gorako aurrekontuak onartu zituen udalbatzak hilbeltzaren 23an burututako osoko bilkuran. Beti gertatzen den bezala, diru-sarrerarik haundiena mendien aprobetxamendutik etorriko da, 47 milioi terdi, hain zuzen. 'Fondo de haciendas locales' delakotik hartzea espero diren 21 milioiek ere aurtengo aurrekontuen zati garrantzitsu bat osatzen dute.

Gastuei dagokienean esan, langileen soldatak eta Segurtasun Sozialak 27 milioi gostako zaizkiola udalari. Gastu orokorrak (argindarrak, telefonoak, eskolak, festak...) eta Hirurteko Planekoak eta beste hainbat inbertisoetan berriz, ia 70 milioi pezeta gastatuko ditu Herriko Etxeak.

## ARESO

# 'Beltzak' gartzeletik aterata ongietorria jaso zuen

### Otsailaren 3an bueltatu zen bere sorterrira

JUANA Mª SAIZAR

Xabier Nieto *'Beltza'*ri ongietorria egin zitzaion otsailaren 3an. Herritar batzuk eta bere lagunek antolatu zuten ongietorria eta 200 bat lagun elkartu ziren. Arratsaldeko 5,30ak aldera ailegatu zen herrira eta suziriak bota zituzten. Herriko 24 haur eta gaztek aurreskua dantzatu zioten eta gero lore sorta eskaini zioten. Berak hitza hartu eta eskerrak eman zizkion han bildutako guziei. Gero, eguraldiari aurre eginez –kaxkarra baitzegoen, benetan– eta gorputzari pozgarria emateko, hainbat janari bildu eta banatu zituzten.

Beltza 1992ko urtarrilaren 27an atxilotu zuten Frantzian. Pabe eta La Santeko espetxetan egon ondotik 1993-ko azaroan extraditatu zuten. Carabanchel, Navalcarnero eta Bonxen egon zen. 1995eko abuztuan askatasun probisionalean atera zen, baina duela urtebete espetxeratu zuten berriro.




**Herriko hogeita lau dantzarik ongietorria eskaini zioten otsailaren 3an Xabier Nietori.**

Argazkia: EGIN

❖ **Txillenea Bordako** pista zola berritzea edo asfaltatzea onartu du Herriko Etxeak, azken batzarrean. Lana aurten eginen da.

## LEITZA

# Industrialdea zabaltzea eskatu dio Udalak Nafarroako Gobernuko Industria Sailari

Urbanizazio lanak egiteko ere diru gehiago behar da

JOSEBA AZPIROZ

Industrialdearekin lotutako arazoetaz hitzegiteko Ramon Bultó, Nafarroako Gobernuko Industria kontseilaria etorri zen urtarrilaren 28an. Berekin bildu ziren udal ordezkariak eta industrialdearen proiektuaren egileak eat enpresariak. Bileran hiru gai nagusi izan zituzten eztabaidagai.

Industrialdearen urbanizazioak sortu dituen arazoetaz mintzatu ziren lehenbizi. Gehien bat udalak aurre egin izan die gastu hauei eta, gainera metro karratuko 13.000 pezeta ordaindu behar izan dute enpresariek. Konponbide gisara, atzeranzko balioa izanen zuketen dirulaguntzaren batzuk bideratzeko aukerak aztertzeko konpromezua hartu zuen kontseilariak.

Industrialdea zabaltzearen beharra ere azpimarratu zuen alkateak, eskaerei aurre hartuz. Dagoeneko %92a jabeen esku dago eta bi partzela bakarrik daude saldu gabe. Egindako azterketan arabera, 19.000 m² gehiago hedatzeko aukera egonen litzateke, Olaberria aldera. Dena den, udalak Nafarroako Gobernuaren esku utzi nahi du gestioa eta finantziaketa. Azkenik, industrialdera sarrera egiteko Leitzaran ibaiaren gainetik zubia egitearen alde agertu ziren udal ordezkariak. Proiektu honekin, herrigunetik auote eta kamioien zirkulazioa gutxituko litzateke eta Sarrio enpresara ere sarbide egokiagoa izanen zen.



### '40 ordu' filmea estreinatu zuten hilbeltzaren 23an

*«Benito izeneko leitzar batek, Fernandez izeneko kontrabandista batekin apustua egiten du tabernan: 60 kiloko harria bizkarrean duela, herriari mugaz muga 40 ordutan buelta eman baietz».* 50. hamarkadan kokatutako apustu hau eta honen inguruan gertatzen direnak dira Izaieta taldearen *«40 ordu»* filmearen argumentua. Hilbeltzaren 23an estreinatu zen herriko zineman eta aspaldi ez bezala, zinema bete bete egin zen eta jende askok ez zuen sartzerik izan. Lau edo bost egunetan grabatua da eta herritar askok parte hartu zuen pelikulan. Ordu terdiko iraupena du talde honek egin duen 9. filme honek. Hauterik hiru sarituak izan dira. Ikusterik izan ez zutenei emanen al diete laster ikusteko aukera. Argazkia: Paco Zufiaur

### Zahar Etxea ukatzeagatik erekurtsoa

Polikiroldegia eta Zahar Etxearen egoitzari buruzko eztabaida batera egin zen azken udal batzarrean, bien kokapena Amazabal auzoko txantreen atzekaldeko zelaia omen delako. Azkenean, Zahar Etxearen inguruan Nafarroako Gobernura errekurtsoa aurkezteko erabakia hartu zen, EAren aldeko botuekin eta HBren botu zuriekin. Hauen ustez errekurritzeak aldeko baino kontrako puntu gehiago ditu. EAren ustez, Leitzako proiektua atzera botatzeko argudioak erakikuntza eta hornikuntza arlokoak dira, konpontzeko modukoak, beraz.

## flash

**Landa industrialdeko elektrifikazio** lanak Miguel Mari Lasarte Zubiturrek eginen ditu. Udalak egindako lehiaketara aurkeztutako zortzi eskaintzetatik berea izan zen merkeena (15.679.934 pta).

**Zinemako boluntarioek** argitaratu berria dute apirila bitarteko programazioa. Berriz ere punta puntako pelikulak ikusteko aukera eskainiko digute: *'Full Monty'*, *'7 años en el Tibet'*, *'El mundo perdido'*, *'Martin (Hache)'*...

**Idazle saritua** Agurne Oronoz Lasagak, Euskaltzaindiaren VII. Azkue olerki lehiaketaren 1. saria (50.000 pta) eskuratu zuen, amodiozko olerki batez. Lehiaketa 10-17 urteko idazleei zuzenduta dago eta 400 bat lan aurkeztu dituzte aurten.

GAZTELU ITURGINTZA
KALEFAKZIOA
Elgoien 32
Tfnoa: 51 00 86
LEITZA

Betiko platerrez gain, bereziak ere eskaintzen dizkizugu.
Eta ezkontzea pentatu baduzu, harrituko zaitugu!
Basa Kabi
Tel. 510125 • Faxa: 610965
LEITZAko gaina

Inaxio AZPIROZ NOAIN 'ALTZATE'
Eraikuntza eta berrikuntzak
Sukalde eta bainu geletan berezitasuna
Azpirozenea etxea - Gorriztaran Auzoa
LEITZA • © 510148

## BAZTAN

# Kirol ekitaldiak antolatzeko diru laguntzen deialdia zabaldu da

Helburu nagusia espartzimendu kirola laguntzea da

TTIPI-TTAPA

Balleko Etxeak, kirol koordinatzailearen bidez, kirol iharduerak antolatzeko eskatzen ahal diren dirulaguntzen deialdia zabaldu du. Dirulaguntza hauek, konpetiziokoak ez diren kirol ekitaldietarako bideratuko dira.

Eskariak otsailaren 28a baino lehen aurkeztu beharko dira dirulaguntza eskariak Kirol Bulegoan.

### Jubilatuen bestak

Basaburua, Narbarte, Legasa, Oieregi, Oronoz eta Arraiozko jubilatuek, Arkupeak elkarteak antolatutako besta ospatuko dute larunbat honetan, otsailak 14. 12etan meza eta 2etan bazkaria Oronozko Pierresenean. Baztangoizako jubilatuak, Urdazubi eta Zugarramurdikoekin batera ortziralean, otsailak 13, bilduko dira. 12etan meza Amaiurko elizan eta 2etan bazkaria Mendialde jatetxean. 4etatik 7etara dantzaldia. Gaur ortzeguna, Elizondo, Lekaroz, Elbete, Irurita eta Gartzaingo jubilatuek ospatuko dute beraien besta.

### Elizondoko ihauteak

Elizondoko ihauteak antolatzeko Gazte Asanbladak bilera egionen du ortziral honetan, 13, arratseko 8etan. Puske biltzea berreskuratu nahi dute.



**Xorroxin irratiaren saria M. Pilar Baleztenarendako**

Xorroxinek eguberritan zozketatu dituen 50.000 Pezetak Mª Pilar Baleztena zubietarrari egokitu zaizkio eta Doneztebeko Mª Cruz lentzerian saldu da. Gogoratu zozketa honetako boletoak Xorroxinen publizitatea egiten duten saltokietan banatzen zirela. MENA

### '12 ordu eskuaraz Baztanen' maiatzaren 1ean ospatuko da

Maiatzaren 1ean ospatuko da aurten Baztango Dantzariek antolatutako '12 ordu eskuaraz Baztanen' ekitaldia. Gan den urtean bezalaxe, goizez antzerkia izanen da karrikan eta arratsaldez dantzak. Kontrabando giroan murgilduko dira aurtengoan, mende honetako lehenbiziko hamarkadetan oinarriturik. Dantzariek, parte hartzeko gonbidapena luzatzen diete baztandar guziei, gan den urteko arrakasta lortzeko asmoarekin.

### flash

**Irurita Baigorriko** eskola enkantearen bidez saltzeko saiakera eginen du bigarren aldiz Balleko Etxeak. Oraingo honetan %5a merketu du hasierako prezioa: 23.040.194 pezeta. Proposamenak otsailaren 23a baino lehen aurkeztu beharko dira Balleko Etxean eta 27an zabalduko dira.

**Oihan probetxamendua** Erdizko-Erreka inguruko herri lurretan dauden 5.874 pago aprobetxatzeko oihan enkantea deitu du Balleko Etxeak. 4.530 $m^3$ zur eta 650 $m^3$ su-egur emanen dute eta hasierako prezioa 45.435.000 pezetakoa izanen da. Proposamenak otsailaren 23a baino lehen aurkeztu beharko dira udal bulegoetan.

**Kontzentrazio ixila** burutu zen otsailaren 3ko eguerdian Elizondoko Foru Plazan, Sevillan hildako PPko zinegotziaren eta bere emaztearen alde. Ekitaldirako deia Balleko Etxeak luzatu zuen.

ARMUA Jatetxea
Zugarramurdiko karretera 3. Km
Tfnoa.: 59 91 31 - URDAZUBI

OSKORRI liburudenda
• Liburuak-prentsa-mapak-gidak
• Argazkilaritza materiala
• Papertegia-inprenta
© 592245 • Petrinea • ORONOZ-MUGAIRI

Eskisaroi jatetxea
Jaime Urrutia, Tfnoa: 580013
ELIZONDO

JATETXEA
Tfnoa: 580101
Santiago 1
ELIZONDO
Galarza

GAS KAITZ fontanería calefacción
Empresa colaboradora de REPSOL BUTANO
Era guzietako instalazioak: Etxekoak, industrialak...
Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • ELIZONDO

EUROPEAN VISION GROUP
BAZTAN OPTIKA
ORDUTEGIA:
Astearte eta ortziral goizetan, 10etatik 1,30etara eta asteazken arratsaldetan, 5etatik 7,30etara
Santiago, 33 (Baztan ostatuaren aitzinean) • ELIZONDO

MENDI OSTATUA
Santiago 25 - © 580313
ELIZONDO

## BAZTAN

# Mendigoizaleek Zuzendaritza Batzordea berritu dute

Bardeak eta Pirinoetan barna ibilaldiak antolatuko dituzte

TTIPI-TTAPA

Baztango Mendigoizaleek Zuzendaritza Batzordea berritu dute, joan den asteburuan egindako azken batzarrean. Bi urtetik zuzendaritzaren erdia berritzen dutenez, sei lagunetik hiru izan dira kargua hartu dutenak: Angel Trantxe, Jexux Bailon eta Joseba Ballarena –Juani Amiano, Felix Salaburu eta Joxemi Arizmendiren ordez–. Lehendik zuzendaritzan zeuden Patxi Arrosamena, Mariano Eseberri eta Ixabel Alemanekin arituko dira lanean.

Bidenabarkoan, aurtengo ateraldien egitaraua ere ezagutzera eman zuten batzarrean. Beti bezala, eskualdean barna hainbat ibilaldi eginen dituzte. Aipagarriak dira, halere, elurretara eginen dituzten bi ateraldiak eta Bardeetan eta Piriniotan barna eginen dituzten zeharkaldiak. Berritasun gisara, Sunbillatik Astigarraga eta Aizkorrira



### Amaiurko pala txapelketaren finala

Jose Mª Iriarte eta Jexux Urrutia amaiurtarrak 40-34 irabazi zuten Dani Etxeberria eta Mikel Garbalena arizkundarren aurka Amaiurko pala txapelketaren bosgarren edizioaren finalean. Gazteek forma fisikoa hobea izan arren, *xaharrek* burua hobeki erabili zuten. Guztira, Arizkun, Erratzu eta Amaiurko hamalu bikotek parte hartu dute aurtengo edizioan.

### Herri lurretan zenbait lan egin gogo dira

Balleko Etxeak zenbait lan egiteko baimena eta dirulaguntza eskatu dio Nafarroako Gobernuko Nekazal Egituren Zerbitzuko Larreen Bulegoari. N-121-B errepidean, Otxondon zerrakurak egitea; Otxondon eta Orabideako bidegurutzean kanadiar hesiak paratzea –lan honek Herri Lan Zerbitzuaren baimena dauka–; Berroetako Mañieriko bidearen moldatzea, zola hobetuz eta pareta eginez, eta herri lurretan luberriak ateratzea dira lanak.

## flash

**'Hitz Egin' herri ekimenaren** aurkezpena burutu zen otsailaren 6an Elizondon. 'Egin' egunkariaren inguruko solasaldian, gaur egungo egoera ekonomikoa eta kriminalizaio kanpainaren berri eman ondotik afaria izan zuten.

**Oihan probetxamendua**
Gañekola inguruko herri lurretan dauden 947 haritz amerikano aprobetxatzeko oihan enkantea deitu du Balleko Etxeak. Hasierako prezioa 12.476.210 pezetakoa izanen da eta proposamenak otsailaren 20a baino lehen aurkeztu beharko dira udal bulegoetan.

**Ehizi-kotoa zabaldu da**
Balleko Etxearen ehizi-kotoa Baztan, Urdazubi, Zugarramurdi, Oieregi eta Narbarteko 37.689 Hektarean barna hedatuko da, Ingurugiro Sailak emandako baimenaren ondorioz. Zabalpenaren ondorioz, Narbarteko lur-eremuak ere sartu dira Baztango ehizi-kotoan 2002. urteko maiatzaren 26a bitartean.

ZUBIRIA
MINDEGIAK
• Etxeak apaintzeko landareak
• Baso landareak
• Bertako frutondoak
ARRAIOZ • NARBARTE
Tfnoak: 452032 (bulegoan) • 592034 (etxean)
Faxa: 581274

ZALDUBI
Martin Lizasoain Adansa
• SUKALDE MOBLEAK
• BAINU MOBLEAK
• MANPARAK
Zaldubi Poligonoa • ✆ 580562 IRURITA


# SENPERE

*Pertsonaia*

***«Poteredunek naturalak direla erakustera eman badute ere, muga guziak artifizialak dire»***

Urtarrilaren 9an Aizpea Leizaola donostiarrak hitzaldi aski interesgarria eskaini zuen Oxtikenean. Konferentzia mugari buruz izan da, gai honetaz ikerketa bat egiten ari delakoz Aizpea. Luzaz ere Sara eta Zugarramurdin bizi izana da, herritarrak hobekiago ezagutzeko. Bere erranetan, *«muga guziak artifizialak dire, baina poderea dutenek beti entseiatu dire erakusterat gauza naturala dela»*.



Aizpea LEIZAOLA



**54 enplegatu biltzen ditu Orma lantegiak** — Argazkia: Studio de la Nivelle

## Lanpostuak sortu dire Lizardia lan zelaian

### «Orma» lantegia haunditu da

Franck DOLOSOR

Herriko ORMA lantegia berriz ideki da eta orain berrogoita hamalau enplegatu biltzen ditu, hauetarik hamabortz Ziburuko SAUPIQUET enpresan ari ziren lehen. ORMA lantegiak itsaskiak transformatzen ditu eta hunen jabe berria SA ANGELINI da.

**1996KO DOBLEA PRODUZITU**

Pentsatzen da produkzioa emendatzea eta, ahal bada, 1996. urteko doblea egitea. Orain merkatu berriak irabazi nahi dire Europa osoan. Nagusi berriak uste du lantegia gaizki kokatua dela, itsaskiak urrundik ekartzen baitire, bainan, halere, lanpostu berriak ere sortuko dituzte, iduriz lau edo bortz.

## flash

**Ihauteriak**

Aurtengo ihauteriak otsailaren 21an izanen dire. Arratsaldeko 5,30etan ibilaldia hasiko da karriketan eta gero, arratsez, usaian bezala erromeria *Lasai lasai* taldeak alaituko du Gaintxikin. Erran behar da, eraberean, *Zikirolatz* euskal dantza taldeko gazteak etxez etxe ibiliko direla bi larunbatetan, otsailaren 14 eta 21an, egun osoan.

**Gazteen elkarteak bortz urte**

«Sanoki» senpertar gazteen elkarteak bortz urte betetzen baititu aurten, kontzertu haundia iraganen da martxoaren 14an, larunbatarekin herriko kirol zelaiaren ondoan. Joko duten taldeak oraindik ezagutzen ez badire ere, talde famatu eta ezagunak izanen direla erran dute Sanokiko gazteek.





DUHAU-ARANA
Kinkaileria
Karrika Nagusia • SENPERE
✆ 0559541044

CRÉDIT AGRICOLE
SENPERE
✆ 0559541057
DONIBANE LOHITZUNE
✆ 0559263702 - 0559261261
PACIFICA
ZURE ETXEBIZITZA
EDO AUTOA
ASURATZEKO



# SARA



## Ihauteriak otsailaren 21 eta 22an

Azken hamar urte hauetan berpiztua izan den ohidurari jarraikiz, ihauteriak Hauste aintzineko asteburuan iragaitekoak dira. Larunbatean, gazte andana bat auzoz auzo ibiliko da bazterrak alaitzeko asmoarekin. Igandean, aldiz, ekitaldi nagusia plazan izanen da eguerditik aintzina. Iazko argazkian ageri den bezala, mozorrotuak eta Zazpiak Bat taldeko dantzariak elgarrekin agertuko dira, dantza jauzi batzuen emaiteko.

### Bixente Garcia preso saratarra etxetik hurbilago

Abendoan jakin dugu Bixente Garcia, hemendik 800 kilometretan preso zegoen saratarra Muret presondegira ekarria izan dela. Orain Tolosa inguruan dago, 300 bat kilometretan eta ez da dudarik hurbiltze hori bizi berri baten hastapena dela, bai beretzat, baita bere etxekoentzat ere.

Sustenga dezagun guk ere gure heinean, gutun bat idatziz noizbehinka. Leon Leon alegia idazleak dion bezala:

*«Dugun erein! Usu ala argal? Erein ongia! Ez da beti gal!*

Urtxoa eta xinaurria (1952)

## Zazpiak Bat taldeko dantzariak elurretan jauzika

Taldeko haundienak joan ziren

MIXEL ETA JACQUELINE

Urtarrilaren 31 eta otsailaren 1eko astebura elurretan igaro dute Candanchun Zazpiak Bat elkarteko hogoita hamar bat dantzarik, taldeko handienek hain xuxen ere. Ateraldi hau egin dute, Omordia Opor-Etxeak udan egindako dantza emanaldien alde eman diruarekin. Hara enplegu laudagarri bat!

Oroitzapen ezin hobeak ekarri dizkigute Candanchu aldetik.


ARTESAU KONTSERBATEGIA



XERRENDA
François BERHO
HARAGITEGIA
Elizako Plaza • SENPERE
✆ 0559541748-0559545400

*Zuk ere ematen ahal duzu zure publizitatea hemen*

(Arratsetan)
0559541285 (Joana)
0559542356 (Franck)

**Okindegia - Gozotegia**

Txokolat eta gozokigintza
Izozkiak • Ogitartekoak
Euskal pastiza



**Berezitasunak**
*Bataio, jaunartze eta ezkontza pastizak*
Pierre LEGAGNOA
Errebote Plaza • SENPERE • ✆ 0559641397

ALFA LAVAL
Kontzesionarioa
*Hazkuntzarako tresneri guziak*
S.A.R.L. SABALOUE
64310 SENPERE
Tel. 0559542766
Fax 0559542951

Kutxa
gipuzkoa donostia kutxa
**Beñat Larraburu**
Sukurtsaleko zuzendaria
7, Portuko Karrika
Tel. 0559203274
Fax 0559203237
64700 Hendaia

Goizetik arats — Beti Euskaraz
GURE IRRATIA
Euskaldunen Irratia 106.6 Mhz

## ZUGARRAMURDI

# Akelarre gaupasa antolatzeko lehen bilera gauzatu da

Iñauteriak otsailaren 22tik 24ra ospatuko dira

MARGARI ETA KORO

Urte hasieran baizik ez gaude, bainan uda alderat begiratzen hasiak gara iadanik: gan den urtarrilaren 30ean akelarre-gaupasarako lehenbiziko bilera egin zen. Eguna ekainaren 20rako finkatu da eta musika taldea gan den urtean bezala *Kukumiku* izanen dugu; baita ere, posible badute, *Joxe Ripiau* ekartzeko asmoa dago. Aurtengoz Zubietako zanpantzarrekin kontatu nahi dugu eta antzerkia prestatzen ere hasiak gara. Beraz, besta giroan emanak gara iadanik.

### Iñauteriak, otsailaren 22tik 24ra

